

## LANGINTZAREN III IRAULPENA ? NOR DA ARKINDUN EDO MEREZDUN ?

Gogo-emoile edo pentsalari izartzen naz batzutan, neure bizitzako ardurak, neurritz ala neurritik kanpo egiten dodazen. Beti, edo geinetan, agertzen da gogokoaren azpitik jakituna, ainbaten irakurritako gaien bat. Gaurkoa, Lopez eta Arriortua'tar inaki'ren gogapena da, langintzari buruz III'en iraulketa dala-ta.

Nik esango neuke orretaz, beste aukera berezi bat dala gizonentzat ordearen bidean jarraitzeko; au da: NEURRIAN edo ARDURADUNAREN ordekaritzan kokatzeko.

Badaukaguz ba, baietza eta ezetza. Nori?. Zalantza barik, izadiak daukan legeari!. Orregaitik agertzen gara, BERAK (JAINKOA) ipinitako lege-neurriaren ordezkari. Eta or agertzen dira GATA eta ARIMA. Leenengoari baietza emon ez gero, edo ezetza ordearen ardurari: GAI batu zale agertzen garela ezan gura dogu. Bigarrena, edo ordekaritzako ardura artzen ba dogu, ez dogu bakarrik azkatasunaren bidea besarkatzen, bai JAINKOA'ren agindua bete be egiten dogu.

Leenengo besarkatu ez gero, ardurabakoak agertzen garela esan bearrezkoa da; orregaitik: zentzuaren, amaitu ezinezko egarria betebearrean beti egon bearra ezango geunke, gaur zortzen dan lez. Norberak batu ez gero bes-teen ardurazko GAIA: dirua, lurraldea, gizona (bere ardura ta guzti), ez bearra baino ez da agertzen: nekea, negarra, illuna, ez jakina, inperioak, menperatasuna, eta abar. Eta ezin geran lez geratu ludi onetan BERAK DAUKALAKO bidea ipinita, bai martxan ere ipini egin gaitualako, "jokoz kanpo agertzen gara". Orduan, nai eta nai ez beste bidea artu bear dogu. Begitu!, non agertzen dan IRAULTZAREN derrigorral.

Bigarrena artu ez gero, bakoitza bere ardurarekin askatazunera doa; au da: bakotxak bere ardura beteaz JAINKOARENGANA. Orrek esan gura dau BAKOTXARI BERA, eta "SEÑOR TRABAJADOR" esan eta egiten dauan lez Lopez eta Arriortua'tar Inakik, ortik ere arrazoi galanta dauala.

Bide okerra artu ez gero, berezko muga beti agertzen da, apurtu dana ezin; eta aurrera tiretu ez gero, bereala ONDAMENDIA, PORROTA. Orregaitik izan bear dira MORALAK edo OITURA ONETAKOAK gure bearrezko lanak eta ardurak, BERAK agintzen dauen neurrian bideratuta, gure alegin guztia bideratzeko.

EUSKALDUNAK, EZ DAU ESATEN EDOZER GAUZAGAITIK "LEGE ZARRA!".

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 1997'en ABENDU'ko 17'an

### ERRIA

Euskalerria eta Gabonak  
daukadaz begi aurrean  
aro ederra ta giza aundiak  
alkartasun beinenean;  
goiko almenez oroi nai neuke  
edertasunak aidean  
euskal bizitza oroiturikan  
gure izkuntz ederrean.

Ume arotik ikusten neban  
begi biekin erria  
arizti mendiz inguratirik  
seme askoren kabia;  
edertasunez poztuten jatan  
nere euskaldun bizia  
nik ez nekian nundik etorren  
pozaren argi bidia.

Izkuntz eder bat entzuten neban  
gurasoen min garbitik  
zeru txiki bat lurak zirudin  
alderdi guztietatik  
gizontasuna ta andratasuna  
agiri ziran nunnaitik  
gizarte on bat aortzen ebela  
buru biotz ta oiñetik.

Aurrez aur neukan erri ederra  
egiaz inguratirik  
buru guztiek naiago eben  
egiz bizi argiturik;  
zuzentasunak berez bai dakar  
bizitz ederra barnetik  
alkartasunez egokiturik  
alderdi guztietatik.

Salto saltari ikusten nitun  
eskolarantza bidean  
neska ta mutil izketan gogoz  
euskal izkuntz ederrean;  
baserri maite zoragarriak  
sortu eben itz erean  
biotzak alai buruak argi  
euskaldunaren senean.

Bein eskolara eldu ezker  
aldatu zan bizitzea,  
Zamoratarra izan genduan  
eskola irakaslea;  
bizitz giroan ez giñan bardin  
maisu eta ikaslea  
ai! zer ta zelan artu gengian  
jakiturizko bidia.

PAULIN